



## Egunerokoa

*Joan den asteburuan, kuadrilla osoa Arri-  
gunagan geundenean, amaxu bat bere  
haurrari oihuka ari zela ikusi genuen, eta  
gero buruan jo zuen. Ez zuen indar han-  
diarekin jo. Haur hura ziur aski amorrua-  
gatik ari zen negarrez. Inork ez du atse-  
gin jipoitua izatea.*

*Oso tristea iruditu zitzaidan hura ikustea.  
Aitak noizbait jo zidaneko sentipena go-  
gorarazi zidan. Amak mehatxatzen nin-  
duen egin ohi zidan, baina jo, inoiz ez.*

*Aitak gezur bat esateagatik jo ninduen  
egun hartan bezala. Nik telebistaren urru-  
tiko agintea apurtu nuen, nahí gabe lu-  
rrera erori zitzaidalako.*

*Aitari aurpegia aldatu zitzaion esan nio-  
nean nik ez nuela egin, bat-batean altxa-  
tu zen, haserre, eta eskua jasota korrika  
hurbildu zitzaidan. Metro eta laurogei,  
eta berrogeita bost urte, metro eta hama-  
bost zentimetroko sei urteko haur bati be-  
larrondokoa eman zioten.*

*Eta jotzeaz gainera, une batez oihuka jar-  
dun zitzaidan besotik helduta. Bestalde,  
bere jokabide urduriaren eta bere arra-  
tzaldea hondatu izatearen errua leporatu  
zidan.*

*Okerrena izan zen kexatu nahí izan  
arren, aurpegira begiratu nionean beldu-  
rra sentitu nuela eta ez nuela ezer esan.  
Oso gaizki sentitu nintzen, amorruez bete-  
ta, inpotentzia izugarriarekin.*

*Zer konpondu zuen aitak? Zer lortu zuen  
jokabide horrekin? Gertatuaren ondoren,  
egin zuenaz pentsatuko  
zuela espero dut.*





# Txalo bakar bat gehiago ere ez!!! beste irtenbide batzuk bilatu behar ditugu

**P**ortaeren inguruko mugak ezartzeko ala portaerak aldarazteko metodo egokia al da? Edota norbere barrena lasaitzea da helburua?

Norbait jotzea, irizpide bat inposatzeko indar fisikoa erabiltzea da. Norbait jotzea, egoera bati aurre egiteko baliabide hoberik ezagutzen ez dela aitortzea da.

Guraso askorentzat eta hezkuntza-aren arloko hainbat profesionalentzat, une egokian emandako belarrondokoa ala matrailekoa gure seme-alabak hezteko baliabide erabilgarri bat gehiago da. Ideia hori gure gizartean oso errotuta dago.

Hasiera batean zigor fisikoa gure seme-alabentzat negatiboa dela esan ahal da, hainbat arrazoi direla-eta:

- Indarkeria baztertu beharrean, bultzatu egiten da.
- Buru-makurtuak sentitzen dira.
- Imitatzeko eredu negatiboa jasotzen dute, baita okerreko jokabidea ere, epe laburreko gatazkak ebatzi ahal izateko.
- Gurasoekiko konfiantza galtzen da.
- Beldurra sentitzen da.

Indarkeria fisikoa kaltegarria dela fro-

gatzeko arrazoi gehiago ere eman ahal izango genituzke. Hala ere, interesgarriagoa da aztertzea jotzearen ala indarraren bidez inposatzearen alde onuragarria defendatzeko arrazoiak zeintzuk diren:

- Seme-alabengandik zerbait lortzea.
- Seme-alabekin loturiko arazoak konpontzeko gaitasun eza.
- Norbere frustrazioak bideratzea.
- Zeren "niri ere egin zidaten, eta begira zeinen ona naizen".

### Gatazka egoerak

Arrazoi horien atzean gatazka egoerak bideratzeko gure trebetasun eza legoke, gure seme-alaben jarrera bakoitza kontrolatzeko beharra, baita euren autonomia propioari aurka egiteko jarrera ere.

Ikastetxea zen, tradizioaren arabeira, irakasgaiak ikasiarazteko, jarrerak zuzentzeko ala tentsioak baretzeko indarkeria erabili ohi zen tokia. Hala ere, urteen joanarekin, logika nagusitu da eta irakaslegoak birziklatzeari ekin dio teknika pedagogikoak, komunikazioaren trebakuntza eta gatazken ebazpena jorratuz.

Era berean, gurasoen zeregina da mugak ezartzen, gatazkak ebazten eta

tentsioak baretzen ikastea, gure indar fisikoaren nagusitasuna inposatu gabe.

Kontua ez da seme-alabak astintzen dituzten gurasoak gaizkileztat hartzea, baina joera jarrera hori desagerrarazteko modua bilatzea da, izan ere, arazoak konpontzea baino seme-alaben autoestimua kaltetzea gehiago lortzen da; bestalde, etorkizunean besteekin harremana izatean jokabide hori bera erakusteko aukerak ugaritzea eragingo du.

### Indarkeria fisikoa erabili

Orokorrean gurasoak indarkeria fisikoa erabiltzearen aurka daude, hala ere, "une jakin batzuetan zer egin ez jakiteak" kontrola galtzera bultzatzen ditu.

Gaur egun antzematen den indarkeriaren hein handi bat, pertsonen arteko harremanetan eta gizartean, hamarkadetan zehar zigor fisikoa justifikatu izanaren ondorioa litzateke.

Seme-alabak behar bezala hezten eta gure harremanetan sortzen diren gatazkak indarkeria fisikoa alde batera utzita konpontzen ikasten badugu, euren esker ona jasotzeaz gainera, gizarteak ere onurak islatuko ditu epe luzera begira.

# Gauegun Gaztelekuaren inaugurazioa

Joan den azaroaren 20an Algortako Gauegun Gaztelekua inauguratu zen, alegia Getxo udalerriko lehenengo gaztelekua. Egun horretatik aurrera, 12 eta 17 urte bitarteko gazte guztientzat erabilgarri dago egunero; bertan, bere adiskideekin topatzeaz gainera aisialdiko jarduera ezberdinetan parte hartzeko ala euren ekimen propioak martxan jartzeko aukera ematen zaie. Erabilgarri duen lokalean gune ezberdinak aurkitu ahal ditugu:

- Hezitzaileen/dinamizatzaileen erabilerarako bulegoa.
- Topalekua ala lagunekin elkartu ahal izateko gunea. Gune autonomoa da, beraz, bertako jarduerak ez dira aurretiaz antolatuko.
- Ikastaroak, tailerrak, bilera laburrak edota beste mota bateko jardueren antolaketa bezalako ekintza sozio-kulturalak bideratzeko mahaiekin eta eserlekuekin hornitutako gunea.
- Baliabideen erabilerarako gunea (ordenagailuak, ikus-entzunezkoak,

liburuak, aldizkariak, komikia...) materialen mailegu-zerbitzuarekin.

- Proiekzio-pantailarekin, ping-pong mahaiarekin eta futbolinarekin hornitutako erabilera anitzeko gunea.

## Ekimenak sustatzea

Lokala dinamizatzeko hezkuntzaren arloko bi profesionalekin kontaktatzen da. Euren zeregina jardueren antolaketa soiletik haratago doa. Hain zuzen, gaztelekuaren helburuetako bat ekimenak sustatzea da. Horreta-

rako, hezitzaileen laguntzaz gainera, gaztelekuak baliabide ezberdinak eskaintzen ditu, horrela, baliabide horiek nahi duen ororentzat eskuragarri jarriko dira. Gaztelekua oinarritzko ekipamenduarekin zabaldu da, gazteriak berak erabaki dezan eskaini behar litzkeen baliabideak zeintzuk liratekeen. Azken batean, gazteriak gunearen antolaketan, programazioan, funtzionamendu arauen ezarpenean, etab. parte hartzea da helburua.



## Irakurriz ikastea ...

Oraingoan zuen seme-alabei (10 urtetik aurrerakoak) zuzendutako liburua eskaintzen dizuegu, zalantzarik gabe gurasoentzat ere erabilgarria dena. Kontakizun honen izenburua berez nahiko adierazgarria da, liburuan aurkituko duzuenari dagokionez. Zergatik nahiko dute guraso horiek bere seme-alaba kaleratu? Erabaki hori hartzeko zerbait oso larria egin ote du? Mehatxua ote da? Ala gurasoen broma bat?

Kontaktetaren autoreak adierazi bezala, oraindik ez omen da ezagutu legezko "kaleratzerik" seme-alaba hezi-

gaitzen, axolagabeen, alferren... kasuan, baina Miguel protagonistaren egoera, sinesgarria izan liteke.


Kasu honetan mutikoaren ama da, semearen aldetik behin eta berriz urratuak izan diren bere eskubideak eskatuko dituena. Alferrikakoak izan dira hitz onak edota errietak, orain jardun egin behar: Lanean, arduragabeak kalera botatzen dira. Seme-alabak hain neurrigabeak, hain alferrak, nahi dutena soilik eginez dabiltzanak... direnean, etxetik kanpo joateko esan behar al zaie?

Sierra i Fabra, Jordi «Querido hijo: estás despedido». Alfaguara Infantil Arg. 7€ (gutx.)



# Getxoko Gurasoen Eskola

- Ikastaroen iraupena hiru, lau ala bost saiokoa izango da.
- Adierazitako data lehenengo saioari dagokio.
- Eguna eta ordutegia berdinak izango dira, ikastaro ari dagozkion astetan zehar.
- Ez da beharrezkoa izango aurretiko izen-ematea gauzatzea. Nahikoa izango da adierazitako ikastetxera etortzea, lehenengo egunean.
- Edonolako arrazoi dela-eta lehenengo egunean etorri ezin izango bazinete, ondorengo saiotara etorri ahal izango zinatekete.
- Zure seme-alabak Ikastetxe horretakoak ez badira, eta hura ezagutzen ez baduzu, atezaindegira ala A.M.P.A.-ra joan ahal izango zara, saioak non ospatuko direnaren berri eman diezazuten.
- Fadura BHI-k eta Julio C. Baroja BHI-k ikastetxetarako batera eskainiko diren jarduerak, Fadura BHI ikastetxean gauzatuko dira.
- Jarduerak doakoak izango dira.
- Lehenengo egunean gutxienez hamabi (12) pertsona etortzen ez badira, bigarren aukera bat bilatuko da, eta horren ondoren, partaideen gutxieneko kopurua lortzen ez bada, ikastaroa atzeratu egingo da. Gunearen barne dituzuen aukeren berri emango zaizue. Garrantzitsua izango da lehenengo egunean etortzea.
- Informazio gehiago eskuratzeko, 944660130 telefonora deitu.



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO

Gizarte Zerbitzuak  
Servicios Sociales

## IKASTAROEN EGUTEGIA: URTARRILA - MAIATZA 2010

	IKASTETXEA	GAIA	HASTEKO EGUNA	ORDUA
Urtarrila	Geroa IP	Sariak eta zigorrak	Urtarrilak <b>19</b> asteartea	9:00
	Zubilleta IP	Sariak eta zigorrak	Urtarrilak <b>19</b> asteartea	14:30
	Artaza BHI	Drogen probentzioa	Urtarrilak <b>19</b> asteartea	19:00
	Fadura BHI Julio Caro Baroja BHI*	Drogen probentzioa	Urtarrilak <b>20</b> asteaskena	19:00
Otza.	Azkorri	Adimen emozionala	Otsailak <b>15</b> astelehena	19:00
	Larrañazubi IP	Sariak eta zigorrak	Otsailak <b>18</b> osteguna	9:00
Martxo	Aixerrota BHI	Nerabeekin elkarbizitza bideratzea (II)	Martxoak <b>22</b> astelehena	19:00
	Fadura BHI Julio Caro Baroja BHI *	Gurasoentzako psikologia ikastaroa	Martxoak <b>24</b> asteaskena	19:00
	Europa	Gurasoentzako psikologia ikastaroa	Martxoak <b>25</b> osteguna	19:00
Maiatza	Divina Pastora	Sariak eta zigorrak	Maiatzak <b>10</b> astelehena	9:00
	Trinitarias	Familiako mugak eta arauak	Maiatzak <b>12</b> asteaskena	9:00
	Romo IP	Familiako sentimenduak bideratzea. adimen emozionala	Maiatzak <b>13</b> osteguna	9:00

\*Ikastaro hau IES Faturan ospatuko da

Informazio gehiago nahi baduzu, telefono zenbaki honetara dei dezakezu.

**94 466 01 30**